



### Helduen Literatura

*Odolaren deia*  
Iñaki Irasizabal  
Elkar, 2014

## Ildo berean

ASPALDI elkar ikusi gabeko bi anaien harremanari buruzko istorioarekin itzuli da Iñaki Irasizabal. *Igelak benetan biltzen dira* (2011) eta *Bizkartzainaren lehentasunak* (2013) irakurri ondoren, esan daiteke, *Odolaren deia* (Elkar, 2014) izendatu duen azken eleberriak idazlearen tematika eta kontaketa estilo berdintsuari heltzen diola. Honetan ere, gizartearen analisi-deskripzio bati ekiteaz gainera zirkulu familiarrean gertatzen den tragedia aurkituko dugu.

Bi anaiek gazte garaitik ez dute elkarren berririk izan eta bakoitzak bere bizitza ahal bezala bideratu du. Gorkak asteburuetan pub bateko zerbitzari lanetan arituz egiten du aurrera. Ez du familia eredugarri esaten den gisako ezer eraikitzea lortu, baina, Nadia eta Gica, amaseme errumaniarrekin partekatzen du bere mundu pertsonala. Gorkak aspaldi galdu zuen bere familiarekiko kontaktua iraganeko hainbat gertakari gogorrek bultzaturik. Eta hala izan dadin nahiago duen arren, odola, odola da, eta beti izango gara sendi bateko partaide. Aldiz, eleberri osoan barrena anonimoki aurkezten den Gorkaren anaia enpresari txikia da. Bera ere ezkondegabea, baina aspaldiko bikotearekin seme-alaba banaren aita.

Familia ez estereotipatuen irudia bilatu du idazleak, errealistagotzat jotzen baitu gaur egun ikusten dugun aniztasuna islatzea, eta testuinguru horretan bi anaien arteko erlazioa txertatu du. Narrazioaren tentsioa *in crescendo* joango da hastapenetik planteatzen diren zenbait enigma argituz doazen neurrian: Zerk eragin zuen Gorka familiatik aldentzera? Zenbateraino gara gai familiarren alde emateko? Zein punturaino pentsa genezake familiak, gure odolaren odolak, traizionatu gaitzakeela?

Urte askoren ondoren ustekabean harrapatuko du Gorka, bere anaia aitaren heriotzaren berri emateko deitzen duenean. Anaiaren dei fatalak iraganeko mamuen kutxa zabalduko du eta polik-poliki, bere identitate ordura arte anonimoa agerian geratuko da. Aldi berean Gorka, odolaren senari jarraituz, ezin pentsatzeko gertaeretan sartua ikusiko da: pederastia, txantaiak, sexu-abusuak, eta abar. Irasizabalen eleberrietan ohikoak diren gaiak, alegia.

*Odolaren deia* anaien arteko erlazioan gorputzen den eleberria da. Pertsonaien natura, familia bereko partaide izatean definitzen da, eta horrek ematen die ekintzei esanahi eta pisu berezia. Hortaz gainera, ez diot eleberri honi deus originalik aurkitu, eta idazlearen ibilbide linealaren erakusle iruditu zait. Hortaz, jada ezagutzen dutenek ez dute ezer berririk aurkituko, eta ezezaguna zaionarentzat ez dezala momentu entretenigarri bat pasatzea baino espero. ■

Saioa Ruiz Gonzalez




### Haur eta Gazte Literatura

## Ardura hartzeak ez du dena alde

SESGAÑAKO Catuxak –bederatzi urteko neska futbolzalea– Xildas izeneko iratxoak aurkitu du herriko plazatik gertu, tokitara joan zaion baloiaren bila jo eta zoko ilun batean sartu behar izan duenean. Iratxo kiras-dun eta bihurria negarrez ari da,

*Xildas*  
Antonio  
Manuel Fraga

Itzultzailea:  
Garbiñe Ugarte  
Grazianteparaluzeta  
Sushi Books, 2013



bakarrik eta galduta dago, bere bizitokira heldu ezinik. Catuxak, mesfidati baina errukituta, ingurune aproposa aurkitzen lagunduko diola agindu dio Xildasi, eta hala, Uxia eta Ulises lagunak eta Vicente, beti zanpaka ari den ikaskidea, bidaide dituela, oinez hamar bat ordura dagoen basoraino joango dira, ezkutuka eta isilka, gurasoei baimenik eskatu gabe. Bidaian iratxoaren bizimodu eta ibilerak ezagutuko dituzte, eta azkenerako, Vicenteren bihotz ona deskubritzeko parada izango dute. Artean kalapitak ere biziko dituzte, ordea, eta trantze txarra pasatu beharko dute gurasoen aurrean.

Gogoetara garamatza liburua- ren amaierak: haur koskortuek egiten dituzten bihurrikerien zergatiaz, eta bihurrikeriaren ordainetan ezartzen zaien zigorrerrez, hezteko metodoez. ■



Garbine Ubeda  
Goikoetxea